

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Abuztuak 27  
Asteazkena  
Alea: 860  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Irailaren 1ean hasiko da Biteri Kultur Etxeko ikastaroetan izena emateko epea

■ Irailaren 1etik 5era izango da izena emateko epea eta jende gehiegi apuntatu ezkerro zozketa bidez erabakiko da zeinek hartuko duen parte ikastaroetan ■ Zozketa, behar izan ezkerro, irailaren 9an egingo da eta matrikula irailaren 11, 12, 15 eta 16an egin beharko da.

HASI dira aurten ere Biteri Kultur Etxean urritik aurrera martxan jarriko diren ikastaroak antolatzen. Aukera haundia dago ikastaro hauetan: eskuekin gauza ezberdinak sortzen ikasi daiteke, gorputza eta ahotsa landu daitezke, argazkiak ateratzen ikasi daiteke, eta abar. Ikastaro gehienak kurtso osokoak dira, urrian hasi eta maiatz edo ekaina aldera bukatzen dira. Hala ere badago kurtso erdia irauten duen ikastarorik: argazkiak nola egiten diren ikasi nahi dutenei zuzendutakoa. Kurtso bukaeran urte osoan egin-

dako lana erakusteko emanaldiak eta erakusketak egiten dira Biteri Kultur Etxean. Ematen diren kurtso guztietara jende asko apuntatzen bada ere ikastaro arrakastatsuenak, yoga, saloi dantza eta egur taila izaten dira.

### Izena emateko

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek irailaren 1etik 5era eman beharko dute izena. Biteri Kultur Etxeko iraileko ordutegia: goizeko 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izaten da. Ikastaroetako taldeek

jende kopuru jakin bat dute eta jende gehiegi apuntatzen bada zozketa bat egingo da ikastaroetan zeinek parte hartuko duen erabakitzeko. Zozketa hau, behar izan ezkerro, irailaren 9an egingo da eguerdiko 12:00etan Biteri Kultur Etxean. Taldeak erabaki ondoren matrikula egiteko egunak, irailaren 11, 12, 15 eta 16 izango dira.

### Prezioek gora

Matrikulen prezioei begira, nabarmen egin du gora ikastaro batzuen prezioak lehenengo urtekoarekin konparatuta. Aurtengoan ikastaroen pre-

zioak ematen diren klase orduen arabera jarri dituztelako garestitu dira. Gehien garestitu diren ikastaroak sesioko 2 klase ordu baino gehiago dituzten ikastaroak dira. Haurrentzako diren ikastaroak eta sesioko 2 klase ordu baino gutxiago dituzten ikastaroen prezioa gutxiago igo da, %4a igo da gutxi gorabehera.

Bestela lehengo urtekoarekin konparatuta ez da aldaketaikizan eskaniko diren ikastaroetan. Izagutxiago egin du gora ikastaroa jende asko apuntatu zen eta hirugarren talde bat osatu zen. Aurtengoan ikastaroen pre-

**Hernaniarentzat merkeago**  
Herrikoentzat ikastaroen prezioak merkeagoak izango dira kanpokoentzat baino. Hala ere hernaniarrek ez dute ikastaroetan parte hartzeko preferentziarik izango.

Diru laguntzak jasotzeko aukera badu ikastaroetan izena ematen duenak eta horretarako baldintza batzuk bete behar dira. Diru laguntza horiek emateko kontutan hartuko diren baldintzak: izena ematen duenak zenbat ingreso dituen eta familiar zenbat lagun diren. Diru laguntzei buruzko informazioa izena emateko orriarekin batera ematen dira. □



Saloi dantza, yoga eta egur taila ikastaroetara apuntatzen da jende gehiena.

### BITERI KULTUR ETXEA 2003-2004 ikasturteko ikastaroak

IKASTAROA	HASI	BUKATU	EGUNA	ORDUA	PREZIO A	KANPO KOEK
Plastika. Haurrentzat. 6-9 urte	Urriak 4	Maiatzak 29	larunbata	10:00-12:00	55 euro	71 euro
Pintura-marrazkia. Haurrentzat. 9-12 urte	Urriak 1	Maiatzak 31	astelehena eta asteazkena	17:30-19:00	82 euro	105 euro
Pintura-marrazkia. Haurrentzat. 6-9 urte	Urriak 2	Maiatzak 27	asteartea eta osteguna	17:30-19:00	82 euro	105 euro
Pintura (sakontzea)	Urriak 1	Ekainak 18	astelehena eta asteazkena	19:00-21:00	168 euro	220 euro
Pintura (hasiera)	Urriak 2	Ekainak 18	asteartea eta osteguna	19:00-21:00	168 euro	220 euro
Keramika	Urriak 1	Ekainak 18	astelehena eta asteazkena	19:00-21:00	168 euro	220 euro
Dantza kontemporanea	Urriak 2	Ekainak 18	asteartea eta osteguna	09:30-11:00	126 euro	166 euro
Dantza kontemporanea	Urriak 1	Ekainak 18	astelehena eta asteazkena	19:00-20:30	126 euro	166 euro
Tai-chi	Urriak 2	Ekainak 18	asteartea eta osteguna	17:30-19:00	126 euro	166 euro
Yoga (sakontzea)	Urriak 1	Ekainak 18	astelehena eta asteazkena	09:30-11:00	126 euro	166 euro
Yoga (hasiera)	Urriak 2	Ekainak 18	asteartea eta osteguna	19:30-21:00	126 euro	166 euro
Yoga (hasiera)	Urriak 1	Ekainak 18	astelehena eta asteazkena	19:30-21:00	126 euro	166 euro
Ahots teknika	Urriak 2	Ekainak 15	asteartea	19:00-21:00	84 euro	110 euro
Eskulanak	Urriak 2	Ekainak 18	asteartea eta osteguna	10:00-11:30	126 euro	166 euro
Muebleak zaharberritzea (hasiera)	Urriak 1	Ekainak 18	astelehena eta asteazkena	19:30-21:00	126 euro	166 euro
Muebleak zaharberritzea	Urriak 2	Ekainak 18	asteartea eta osteguna	19:30-21:00	126 euro	166 euro
Egur taila	Urriak 2	Ekainak 18	osteguna	18:00-20:30	84 euro	110 euro
Egur taila	Urriak 7	Ekainak 18	asteartea	18:00-20:30	84 euro	110 euro
Saloiko dantza (hasiera)	Urriak 7	Ekainak 18	asteartea	19:00-21:00	84 euro	110 euro
Saloiko dantza (sakontzea)	Urriak 2	Ekainak 18	osteguna	19:00-21:00	84 euro	110 euro
Saloiko dantza (espezializazioa)	Urriak 3	Ekainak 18	ostirala	19:00-21:00	84 euro	110 euro
Antzerkia	Urriak 4	Ekainak 19	larunbata	10:00-12:30	84 euro	110 euro
Harri taila eta eskultura	Urriak 4	Ekainak 19	larunbata	10:00-12:30	84 euro	110 euro
Argazkigintza (hasiera)	Urriak 1	Otsailak 4	astelehena eta asteazkena	19:00-21:00	90 euro	116 euro
Argazkigintza (sakontzea)	Otsailak 16	Ekainak 2	astelehena eta asteazkena	19:00-21:00	90 euro	116 euro

## Telemar

Itxastele, S.L.



**RENOVE PLANA**



Egundoko ESKAITZAK  
Etxe tresnatan eta  
mugikorretan.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

## Jatetxea

Venta Berri



Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
Larunbatetan itxia

## BiKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA



Eguneroako ogia  
beti bikain



Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487  
20120 Hernani

■ ERREMONTA -CASINO KURSAAL TORNEOA



Ezkurrak izugarri jokatu behar izan zuen atzo Eizagirri partidua irabazteko.

## Biek irabazi, Ezkurrak partidua eta Eizagirrek finalerako txartela

■ Eizagirrek 18 tanto egitea nahikoa zuen finalera pasatzeko ■ Ezkurrak bigarren semifinala Zeberio IIren kontra jokatuko du larunbatean eta nahikoak ditu 24 tanto.

<b>Ezkurrak</b>	<b>30</b>
<b>Eizagirrek</b>	<b>29</b>

EZKURRAK eta Eizagirrek aspaldiko partidurik ederrena jokatu zuten atzo Galarretan. Ezkurrak irabazi zuen partida 30-29 baina, Eizagirrek ere esku-eskura izan zuen, momentu bat baino gehiago tan. Partiduan 19 berdinketa izan ziren eta Galarretako giroa izugarri piztu zuen horrek. Sakez 6na tanto egin zituzten

eta sake errestatzen ere ondo ibili ziren biak. Azkenean Ezkurrak ondo botatako bi pareteko altxata egin zuen tantoa. Azken finalerdia Ezkurrak eta Zeberio IIk dute datorren larunbatean, 17:00etan, Galarretan. Ezkurrak nahikoa ditu 24 tanto finalera pasatzeko.

**Promesen Bi-bitakoan Larrea-Urrutia finalean**  
Promesen Bi-bitako Txapelketak badauka lehenengo finalista

bikotea. Larrea-Urrutia dira finalera pasa direnak, Iturrealde eta Ioni 35-30 irabazita, joan den astelehenean. Finalerdiko partidua oso ona izan zen, espero bezala, eta irabazoleek lan haundia egin behar izan zuten 35garren tantora iristeko. Diferentzia sakean egon zen, Urrutiak 8 egin baitzituen eta Ionek 3. Finaleko bigarren bikotea zein den gaur jakingo da Matxin III-Agirrezabala eta Juaristi-Gaztelu bikoteen artean. □

### ERGOBIKO JAIAK

## Telleriaren idiek irabazi dute Ergobiko saria

ATZO bukatu ziren Ergobiko jaiak. Azken egunerako utzi zituzten ekitaldi garrantzitsuenak eta jendeak ondo erantzun zuen guztietan. Eguerdiko 12:00etan idi-demak izan ziren bigarren egunez jarraian eta Telleriak irabazi zuen, bi egunetako lanak kontatuta. Telleriaren idiek 58 plaza egin zituzten; Olasagastiren 54; Izetaren 50 eta Petritegiren 48. Lehenengo 15 plaza azkarrean egiten zituenak sari berezia zuen eta hori Izetak atera zuen. Eguerdiko Herri Bazkarian eta gaueko herri antzerkian ere jendetza bildu zen, eta giro ederrean egin ziren. □



Ergobin atzo egindako Herri Bazkarian 130 lagun bildu ziren.

■ CLUB DEPORTIVO HERNANI

## CDHko urteko Asanblea gaur

■ Bazkideen kuota igotzea da gaietako bat ■ Asanblea arratsaldeko 19:30etan hasiko da, Sandiusterrin.

CD Hernanik urteko Asanblea du gaur arratsaldean. 19:30etan hasiko da Batzarra eta honako gai hauet hitz egingo dituzte: kirol ekintzei buruzko memoria; joan den denboral-diko memoria ekonomikoa;

bazkideen kuota igoera; datoren denboraldirako aurrekontua; eta galdera eta erantzunen tartea. CDHk 500 bazkide inguru ditu eta denak daude deituta Batzarrerako, gaur, 19:30etan, Sandiusterrin. □

■ TIRO - GIPUZKOAKO TXAPELKETA



Joan den igandean saritutako tiratzaileak, Santa Barbaran.

## Ezama errezzildarra txapeldun eta hiru herniarrek sariak

■ Astarloa txapeldun 4garren mailan, eta Erauntz tamurgil eta Redondo 2 eta 3garren hasi berrietan.

JOAN den igandean Gipuzkoako tiro txapelketa jokatzen Santa Barbarako tiralekuaren. Ezama errezzildarrak irabazi zuen txapela oso final estua jokatuta. Desenpate bat jokatu ondoren oraindik 4 lagun zeuden berdinduta eta kale edo bale jokatu behar izan zuten, tiro bakarrera.

Herniarrek hiru sari aterazituzten, bakoitzak bere kategorian. Astarloak 4garren mailako lehenengoa irabazi zuen; Erauntz tamurgilek hasi berrietan 2garren saria; eta Redondok kategoria berean 3garrena. Beste irabazoleak: 1 eta 2garren mailan Sagarzazu eta 3garrenean Jauregi. □

■ HITZ BITAN

✓ EHIZA

**Galeperra, tortola eta usoa garaia irekita.** Galeperra, tortola eta usotarako ehiza garaia zabalik dago, joan den igandea ezkerotzik. Irailaren erdialera arte egongo da irekita, eta hor berriro itxi egingo dute urriaren bigarren astera bitarte. Bestalde, urtero bezala, garai honetan Arizmendiko ehiza postuak zozketan jartzen dira, Txantxangorri elkartean. Zozketa egunero egiten da, 20:00etan, elkartean bertan.

✓ MENDIA

**Hernani-Urnieta-Goizueta mendi ibilaldiko diapositibak bihar Bodegan.** Abuztuan urtero mendi ibilaldia egiten da Besabitik Goizuetara, eta azken 10 urteotako argazkiak ikusteko aukera izango da bihar Bodega tabernan. Emanaldia gaueko 22:30etan izango da. □

**IRAGARKI MERKEAK**

Pertsona batentzako, pisu batetako alokairu merke baten bila nabil. ☎: 649 07 53 59. Gela bat alokatzen da, bullegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuek deitu: ☎: 943 55 29 47 - 943 55 46 97

Emakume bat behar da umea ikastolara eraman eta etxeeko lanak egiteko. Sarrera 07:15etan. 943 333446 (20:00etatik aurrera) - 606 526260

**ZERBITZUAK**

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎: 943 336077
- Gauetan: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎: 943 550942